



EDIKTOA

JOSE IGNICIO BAKAIKOA ARISTORENA
ETXARRI ARANAZKO ALKATEAK

ADIERAZTEN DU

2012KO UDAL ZERGA-TASAK

Kontuan hartuz Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 12, 64 eta 132. artikuluetan ezartzen diren aurreikuspenak, haien ondorioz udalek erabaki behar baitituzte nahitaez ordainarazi beharreko zergeri aplikatzekoak diren karga-tasen zenbatekoak. Legean finkaturiko mugen barrenean, salbu eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, hala xedatzen baitu foru lege beraren 162. artikulua. Aintzat hartuz zerga bakoitzerako aipatutako legeak 139.2, 154, 170.2 eta 175.2 artikuluetan ezartzen dituen mugak, Etxarri Aranazko Udalak, kontu-hartzailearen proposamena ikusi ondoren, 2011ko abenduaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau hartu du, kontuan izanik foru lege horren 64. artikuluan ezarritakoa:

Lehenbizikoa.-2012ko ekitaldirako onestea ondotik ematen diren karga-tasak, nahitaez ordainarazi beharreko zergeri dagozkienak.

Zerga-tasak

- 1.1. Hirilurren gaineko kontribuzioa: karga tasa: %0,2458%
- 1.2. Landalurren gaineko kontribuzioa: karga tasa: %0,80.
- 1.3. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: karga tasa: %4.
- 1.4. Gainbalioa: %10,0:
 - 5 urtera arte: %2,2.
 - 10 urtera arte: %2,1.
 - 15 urtera arte: %2,0.
 - 20 urtera arte: %2,0.

2.-Erabaki honek 2012. urteko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

3.-Erabaki hau toki entitate honen iragarki oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Etxarri Aranatz, 2012ko urtarrilaren 3an
Alkatea: Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena

